

HIZKUNTZEN HISTORIA SOZIALA: EUSKARAREN AZTERKETARAKO EREDUA

Lionel Joly

Euskaltzaindia

Helbide elektronikoa: ljoly@euskaltzaindia.net

SARRERA¹

Artikulu honetan hizkuntzen historia soziala aztertzea zer den azaltzen saiatuko gara eta iker eremu berri hau bere nazioarteko testuinguruan kokatzen. Lan honen bigarren zatian euskararen kasuari helduko diogu eta, bereziki, euskararen historia soziala aztertzeko Euskaltzaindiak garatu duen Etxeberri egitasmoa aurkeztuko dugu. Bukatzeko, proiektu honen baitan erabili nahi den eredu teoriko metodologikoa aurkeztuko dugu.

I. HIZKUNTZEN HISTORIA SOZIALA BERE TESTUINGURUAN

Hizkuntzen historia sozialaren azterketa iker eremu berria da bai soziolinguistikaren eta baita linguistikaren diziplinetan. Hizkuntzen historia linguistikoak eta hizkuntzen historia konparatuak anitz dira baina hizkuntzaren dimentsio sozialaren azterketa sistematizatua bere garapen historikoan ez da ohiko ikerketa eremua. Zer esanik ez euskararen kasuan. Hala ere iker eremua ezaguna da eta bere *Sobre el pasado de la lengua vasca*² liburuan, K. Mitxelenak hizkuntzaren historia soziala aipatu

zuen: “Cuando el término *historia* aparece relacionado de una u otra manera con la lengua, se debería tener muy presente una distinción esencial: la que separa la historia interna de la lengua, que se atiene a los datos que nos proporcionan los documentos lingüísticos en cuanto tales, de la historia externa, que no es otra que la del pueblo al cual ha servido de vehículo principal o único de comunicación, y la del territorio donde ha estado en uso”³.

Nazioarte mailan bada hainbat lan interesgarri hizkuntzen historia soziala argitzeko, nahiz eta gehienek ikuspegi nagusia erabat lingüistikoa den. Kasu honetan aurkitzen dira F. Brunot eta C. Bruneau-ren lana⁴, Cohen-ena⁵, Lapesarena⁶, neurri batean Mitxelenarena ere. Badira erabat soziolinguistikoak diren lanak, adibidez Gales-aren kasuan Jenkins, Williams, Jones eta Parry-ren liburuak⁸ edo okzitanoaren kasuan Kirsch, Kremnitz eta Schlieben-Lange-ena⁹. Okzitanoaren kasuan, nahiz eta interesgarria izan, oso labur gelditzen da egindako azterketa. Gales-ko kasuan, bestalde, hainbat liburu mardul argitaratu eman dira bertako hizkuntzaren historia sozialaz, baina obra bera ez da saiakera sistematizatu bat. Autoreek nork bere ikuspuntua ematen dute galesaren historiaren epealdi bati buruz: baina bakoitzak berea ematen du, alegia lanen arteko batasun metodologikorik ez dago. Dakigula behintzat, ez da hizkuntza baten historia sozial bat eskuragarri modu orokor eta sistematizaturik eginik.

1.1 Hizkuntzen historia soziala zer da?

Nazioartean eredurik ez badago, hizkuntza baten historia soziala zer da? Gure iker eremua zehazteko eta mugatzeko guretzat “hizkuntza baten historia soziala” zer ez den hasiko gara azaltzen. Hasieran esan dugunez, historia soziala ez da historia intralingüistikoa. Hizkuntza baten barne-estruturak, hiztegia, morfologia e.a nola aldatu diren azaltzea ez da historia soziala, nahiz eta neurri batean aldaketa gehienek zergatia aski lotuta egon gizartearen garapenarekin eta beraz linguistek azaldutako zergati horiek ere beren historia soziala izan. Hiztunen kopuruaren garapena historian zehar aztertzea ere, Fañch Broudic-ek¹⁰ maisuki egin duen bezala bretoiaren kasuan, ez da berez historia soziala: historia sozialaren zati bat da, demolinguistika deitua, baina historia soziala ez da horretara mugatzen, zergatiak ere aztertu behar dira adibidez.

Nazioarte mailan eredurik ez dagoela esatea ez da erabat egia: gora-go aipaturiko lanak hor ditugu eta, horrezaz gainera, badira hainbat lan euskararen kasuan. Esate baterako, Euskaltzaindiaren *Euskararen liburu zuria*¹¹, Jimeno Juriorenak edota X. Erizerena¹². Lan horiek guztiak oso baliagarriak dira hizkuntza baten historia soziala egiteko eredu metodologiko baten bila gabiltzalarik, baina berez ez dira aski. Haien eremua mugatua da eta lan arteko metodologia ez da bateratua edo sistematizatu eta historiaren zati bakar bati buruz ematen dute informazioa.

Hizkuntzen historia sozialaren azterketa iker eremu berria da bai soziolinguistikaren eta baita linguistikaren diziplinetan. Hizkuntzen historia linguistikoak eta hizkuntzen historia konparatuak anitz dira baina hizkuntzaren dimentsio sozialaren azterketa sistematizatu bere garapen historikoan ez da ohiko ikerketa eremua.

Historia soziala ez da historia intralinguistikoa. Hizkuntza baten barne-estrukturak, hiztegia, morfologia e.a nola aldatu diren azaltzea ez da historia soziala, nahiz eta neurri batean aldaketa gehienen zergatia aski lotuta egon gizartearen garapenarekin.

II. ETXEBERRI EGITASMOA (EHS)

II.1 Helburuak

Iker eremuaren garrantzia kontuan harturik eta berari buruz ditugun gabeziez jabeturik, egitasmo berri bat bultzatzen ari da Euskaltzaindia, euskararen historia soziala argitzeko. Guk dakigula ez dago aurrekari handiegirik lan-molde horretaz, nazioarte mailan. Ez da hutsetik sortua ordea, inola ere. Egitasmoaren helburua honela defini liteke: “euskararen iraganeko bizitza soziala argitzea da euskararen historia sozialaren helburua”. Horrela definitu zuen xedea Joseba Intxaustik, proiektuaren zuzendariak, *Euskera* aldizkarian argitaratutako txostenean¹³. Aurreraxeago, horrela definitzen du hizkuntzen historia sozialaren azterketa: “HHSk (hizkuntzen historia sozialak) hizkuntzen denboran zeharreko gizarteko izaera-bizierak aztertu nahi ditu; iraganaren jariora datozen gizarteko hizkuntzekiko usteak, zientziak, antolaerak, egoerak, jarrerak, jokabideak, aldakuntzak eta abar ikertu nahi ditu”. Proposamen metodologikoa biltzen duen txostenean Mikel Zalbidek, proiektuaren aholkulariak, honela zehazten du Euskararen Historia Sozialaren helburua: “Euskararen izaera soziala (aurrez aurreko hizkuntzen eta hizkuntza-aldaren erabilera, hizkuntzei eta hiztunei buruzko jarrerak, hiztunen mintzagaitasuna...) azaltzea eta izaera horrek perspektiba kronologikoa izan duen bilakaera adieraztea”¹⁴.

Etxeberri egitasmoa perspektiba soziohistorikoan kokatzen da beraz eta “euskararen (hainbatean, bertako euskara-erdaren) gizarte-dimentsioa (ez hizkuntzaren barne-egitura) bere osoan arakatu eta historiaren ardatzean zehaztu nahi du. Horretarako, (...) egungo egunean eskuragarri diren datuak (ahalik eta datu gehienak) bildu behar dira, kontzeptuz egituratu, sistematikoki azaldu eta interpretatu. Lan hori burutu nahi du *EHSk*”¹⁵.

II.2 Egitasmoaren ibilbidea

Proiektuaren helburua argia da beraz. Helburua zehaztutakoan, proiektua bera martxan jarri behar izaten da, giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak aurkitu eta metodologia finkatuz. Artikulu honen hasieran ikusi dugunez, aurrekari handirik ez dago nazioarte mailan eredu gisa erabiltzeko. Berariazko lanketa oso eta propioa garatu behar izan du beraz Etxeberri egitasmoak. Hobeto esanik: horretan ari izan dira proiektuaren eragile nagusiak: Joseba Intxausti, Mikel Zalbide eta Nick Gardner.

Proiektuaren orain arteko ibilbidea nahiko arina izan da. Helburua eta proiektuaren garrantzia 2006an aurkeztu zituen Joseba Intxaustik, Euskaltzaindiaren Etxalarko barne-jardunaldietan. Proiektua han bertan onartu zelarik, zuzendaria eta aholkularia berehala izendatu zituen Euskaltzaindiak. Proiektuaren jendaurreko lehen aurkezpena 2007ko *Euskera*

aldizkarian¹⁶ egin zen. Lana hezuramitzeko ezinbestekoa ikusten zen teknikari aditu baten lankidetzat. Teknikari nagusi hori, Nick Gardner ale-gia, handik gutxira kontratatu zen.

Proiektua Euskaltzaindiaren babespean dago. Baliabide ekonomiko-ak akademiak berak jartzen ditu. Giza baliabideak, aldiz, bi motatakoak dira. Alde batetik euskaltzain bien kasua dugu: Joseba Intxaustik horretara ematen du bere lan-egunaren zati bat. Mikel Zalbidek, berriz, bere lan-jardun profesionalek kanpora dihardu horretan, astero-astero hainbat ordu eskainiz proiektuari. Baliozkoa izateaz gainera bereziki esker-tzekoa da bien ahalegina. Euskalgintzari lehendik ere hainbeste ekarpen eskainia dion Joseba Intxaustik neurri honetako proiektu bat hain maisu-ki zuzentzeko interesa eta adorea erakustea ez da nolana hiko gauza. Euskararen gizarte-dimentsioa ikertzen aitzindaria izan da bera: gaiaren inguruko bibliografia osatua eta kalitate handikoa du¹⁷. Mikel Zalbideren ekarpena, berriz, ohargarria da bai maila praktikoan eta bai soziolinguistikazko ezagutza teorikoaren aldetik: kalitatezko lan asko argitaratu du, euskararen historia soziala argitzen lagunduz¹⁸, eta ezagutza horren ildotik ari da EHSrako lan-metodologia prestatzen. Bulego tekniko bat osatuz joan da Euskaltzaindia, azkenik, 2007an hasi eta 2008an zehar, Nick Gardner bertako buru izanik.

Giza baliabideak eta dirubideak zehazteaz gainera, proiektuaren eredu metodologikoa finkatzeari heldu zaio urtebete inguru honetan. Mikel Zalbideren lana izan da hori, batez ere. Bera arduratu da nazioarteko bibliografia soziolinguistikoa aztertzeaz eta zientzia-oinarri itxurazkoa (azken mende erdi honetan sorturiko konstruktuzko soziolinguistikoko ustez sendoenetan sustraitua) prestatzeaz, aurkezteaz eta doitzeaz. Berariazko ahalegina egin du berak, EHS proiektuak oinarri sendoa izan dezan.

Oinarri-eredu hori ez da bat-batean sortu. Ibilbide luzetxoa egin du dagoeneko, proba-epe jakina tarteko. Hainbat aldaketa, xume eta ez hain xume, eragin zaizkio bidean. Proposamen metodologiko hori nazioarteko aditu handi batzuei pasatu zaie tartean, azter dezaten eta iritzia eman. Jardunaldi berezia antolatu zen 2007an, urriaren 15ean eta 16an, eredu metodologiko hori aurkezteko, aztertzeko, eztabaidatzeko eta adituen proposamenak eta iruzkinak jasotzeko. Euskal Herriko eta Euskaltzaindiko zenbait adituz gainera han izan ziren, berariaz gonbidaturik, Galesko C. Williams, Israelgo B. Spolsky eta Txinatik etorritako B. Jernudd suediarra. Eredu metodologikoa euskararen historia soziala egiteko sortu bada ere berez, nazioarteko bibliografian eta hizkuntza-soziologiaren alorreko ikerketa-lanetan oinarritu ditu M. Zalbidek bere zirkuitu teorikoak.

2007ko urriko jardunaldietan eredu metodologikoa eztabaidatu zen bezala, Euskaltzaindiak berriki (2008ko urriaren 6tik 10era) antolatu duen XVI. Biltzarrean, *Pirinioetako hizkuntzak. Lehena eta oraina* izenburupean, proiektu osoa aurkeztu da. Biltzarren aktak laster argitaratuko dira, eta Etxeberri egitasmoari buruzko informazio xehea bertan agertu-

Egitasmoaren helburua honela defini liteke: "euskararen iraganeko bizitza soziala argitzea da euskararen historia sozialaren helburua".

Iraganaren jariora datozen gizarteko hizkuntzekiko usteak, zientziak, antolakerak, egoerak, jarrerak, jokabideak, aldakuntzak eta abar ikertu nahi ditu.

Horretarako, (...) egungo egunean eskuragarri diren datuak (ahalik eta datu gehienak) bildu behar dira, kontzeptuz egituratu, sistematikoki azaldu eta interpretatu.

*Eredu metodologikoa
euskararen historia
soziala egiteko sortu
bada ere berez,
nazioarteko bibliografian
eta hizkuntza-
soziologiaren alorreko
ikerketa-lanetan oinarritu
ditu M. Zalbidek bere
zurkaitz teorikoak.*

ko da. Gorago aipatu dugunez, bestalde, hasierako aurkezpen orokorra dagoeneko argitaratua dauka J. Intxaustik, *Euskerak* aldizkarian.

II.3 Lan-funtzionamendua, proiektuaren produktuak

Eredu teoriko-metodologikoa aurkeztu baino lehen, komeni da begiz jotako lan-funtzionamendua zein izango den azaltzea. Hemen ez dugu Etxeberri egitasmoan lan egingo duen gizataldearen barne-funtzionamendu osoa aurkeztuko. Ikertzaileei begira zein tresna eta zer baliabide lehenetsi diren azalduko dugu hemen, aitzitik.

Proiektuaren helburua argia da: euskararen historia soziala egitea. Ahalik eta datu gehien bildu eta aztertu nahi da horretarako. Datuen azterketa horrek sistematikoa izan behar du. Helburua handia da beraz eta egitasmo honek gutxienezko denbora eskatuko du. Izan ere, liburu orokor baten argitalpenetik askoz haratago jo nahi du egitasmoak. Orain arte gai honetaz eskueran dagoen bibliografia mugatu samarra denez, une honetan eskueran dagoen informazio hutsetik ezinezkoa izango litzateke EHS orokorrik idaztea. Gaurkoz eskueran ditugun datuak kontuan hartuta, lan global hori ez da ikusten gaur-gaurkoz egingarria denik. Azken helburua lortzeko, euskararen historia sozial orokorra idazteko alegia, tresna egokiak sortu beharko dira aurrez, beharrezko informazioa jasotzen urteak xahutuz.

Hartara bidean jarriko gara ordea eta, lehen une honetan, ikerketa partzialak egingo dira euskararen historia sozialaz: aztergai jakin honi edo hari buruzko ikerketa. Besterik egitea, haratago joatea, ezinezkoa litzateke gaurkoz. Ikerketa partzialak egingo dira beraz, oraindik: euskararen historia sozialaren aldiune edo lekugune zehatz bati buruzko ikerketa. Saio bakoitzak ikerburu bana izango du. Ikerketa partzialak dira, baina aukeratzen duten gaiak eskeran (argitaraturik, artxiboetan,...) dagoen informazioa eskuratzen eta, ahal den heinean, zuhurki ustiatzen saiatu beharko dute. Adibide moduan, M. Zalbidek eredu metodologikoa frogatzeko aukeratu duen ikerketa aipa genezake: "Donostia 1761: hizkuntzak eta hiztunak". Argi dago ikerketa hori ez dela jenerala. Aitzitik, euskararen historia sozial orokorra argitzeko partziala da oso. Baina une eta leku jakin batez ahalik eta informazio-iturri gehien bildu du (eta biltzen jarraitzen du) M. Zalbidek, eta une hartako Donostiaz orain arte ez bezalako argitasunak eman litzake. Horrelako ikerketa anitz dugunean, bildutako informazioa lekuz eta jakin-iturritz anitza denean, euskararen historia sozial orokorra egiten saiatu ahal izango gara.

Orain arte esandakotik bi galdera eratoritzen dira: a) ikerburuak zein (izango) dira? b) zer informazio modu bilduko da ikerketa bakoitzean? Ikerburuek bi ezaugarri izan beharko dute besteak beste: soziolinguistikaren berri izatea eta, nola ez, aztertu nahi den epoka edo garaia ikuspegi historikotik ezaguna izatea. Soziolinguistikaren ezaugarri nagusieta-

koa bere diziplinartekotasuna izanik, historialariak, hizkuntza-soziologoak, soziolinguistak, hizkuntzalariak, geografoak, psikolinguistak e.a. ikerlari izan litezke. Proiektuaren jomuga ikusita, dena den, batez ere historialariek edota hizkuntza-soziologoek (soziolinguistek) bideratuko dituzte ikersaioak. Ikerburu guztiek proiektuan sortutako lan metodologია erabiliko dute, ikersaioen artean behar-beharrezko lotura izan dadin eta interpretazioan sistematikotasun gutxieneko bat lortzeko. Eredu teoriko metodologikoa aurkeztean argi ikusiko dugu, bestetik, eredu horri irekia dela eta muga zorrotzik ezarri baino gehiago hizkuntza eta hitzunt kontuen interpretazio soziohistorikorako tresna berriak eskaintzen dizkion ikerburuari.

Bigarren galderari helduko diogu orain: zer informazio bilduko da? Ikusi dugunez, proiektuaren lehenengo produktua ikersaioak izango dira, ikerketa partzialak. Ikerketa horiek egiteko, gizarte-zientzietan eta historian egin ohi denez, ahalik eta bibliografia osoena biltzen saiatu beharko dute ikerlariek. Bibliografia aipatzen dugunean, ez dira bigarren eskuko datuak bakarrik erabiliko. Ezin utzizko altxorra da hori. Aurrez egindako lan sakon eta zabalaz baliatu ahal izatea suerte handia izango da halakoetan: Juan Madariagak 2006an argitaratutako lanetik¹⁹, adibidez, informazio aberatsa, fidagarria eta kontrastagarria jaso ahal izango da. Dena den, gutxitan izango dugu halako suertea. Normalean jatorrizko iturriak ustiatu beharko dira: argitaratu gabeko dokumentuak edo artxiboak izango dira, halakoetan, berariaz bilduko ditugun datuak.

Ikusten denez, ikersaio baten lehen pausoa informazio-iturriak zehaztea izango da. Hori egindakoan ikerburuak, zerrenda pasatuko die egitasmoaren arduradunei eta bibliografia hau osatzen duten liburuetan ikersaiorako interesgarria izan daitekeen informazioa sailkatuko dute Etxeberri egitasmoko langileek, beti ere sortutako eredu metodologikoa-
ren arabera.

Labur bilduz, Etxeberri egitasmoa ikertzaileentzako lagungarriko tresna da. Hala izateko pentsatua dago, behintzat. Horra nola: ikerlari batek euskararen historia sozialarekin lotutako gai bat hautatzen duenean gai horri buruzko bibliografia bilduko du. Berak egin beharreko lana da hori, noski. Hurrengo pausoa, aldiz, ez. Bibliografia osoa berak irakurri eta aztertu beharrik ez dauka, ezinbestean. EHS proiektuan diharduten langileek diskriminatuko dute bibliografia horren altzoan ageri den informazio teknikoa, kasuan kasuko ikertzaileak azaldutako interesaren arabera. Beraiek identifikatuko dute informazio hori eta sailkatuko, proiektu osoaren eredu teoriko-metodologikoa-
ren arabera. Ikersaioari dagokion informazioa sailkatu eta prozesaturik dagoenean, hortik ateratzen den emaitza ikerburuari itzuliko diote, hurrengo pausoa eman dezan. Ikerburuak interpretatu beharko du informazioa eta, azkenik, ikersaioaren emaitza-testua idatzi. Gogoeta-lan handiena ikerburuaren esku gelditzen da beraz, gisakoa denez. Aldiz inurri-lan handiena (libu-

Une honetan eskueran dagoen informazio hutsetik ezinezkoa izango litzateke EHS orokorrik idaztea. Euskararen historia sozial orokorra idazteko alegia, tresna egokiak sortu beharko dira aurrez, beharrezko informazioa jasotzen urteak xahutuz.

Horrelako ikersaio anitz dugunean, bildutako informazioa lekuz eta jakin-iturriz anitza denean, euskararen historia sozial orokorra egiten saiatu ahal izango gara.

ruak irakurri, informazioa identifikatu, diskriminatu, sailkatu eta prozesatzea) EHS proiektuaren lan-talde teknikoak egingo du. Aurretik esan dugunez, esparru horretan ari diren espezialistei edo hartan jarduteko informazioa, gaitasuna eta asmoa duten ikertzaileei zabalik egon nahi du egitasmoak. Ikertzaile edo aditu batek gai honetan interesa izango balu, hortaz, proiektuaren arduradunekin bildu beharko luke lehenik eta behin. Berak begiz jotako ikersaioa egitasmoaren mugetan ongi sartzen den ikusiko litzateke lehenik eta, hori adosterik balego, proiektuaren lan-metodologia azalduko litzaioke, hemen egiten dena baino xehetasun gehiagoz. Denbora izan liteke, besteak beste, muga-iturri nagusietako bat. Oraingoz urte t'erdiko epea jarri da proba egiteko eta EHSk aurrera begira zer izan behar luken ikusteko, eta zaila da epe horretan askoz ikersaio gehiago aldi berean bideratzea. Datuak identifikatu, diskriminatu, sailkatu eta prozesatzeko lanak orduak eskatzen ditu, eta pauso horiek ezin dira besterik gabe gaintitu.

Merezi du, honez gero, informazioa nola sailkatuko den azaltzea. Informazioa identifikatu, diskriminatu eta sailkatu egingo dela esan dugu, baina ea dugu esan nola. Lan horretarako, oro har, aipuak definitu eta prozesatuko dira. Hots, autore baten liburuan, artikuluan edo beste nolabaiteko dokumentu-iturritan ikersaiorako interesgarria den (izan litekeen) zerbait irakurtzen (hainbatetan, inplizituki bildua aurkitzen) bada, berariaz marraztuko da pasarte hori. Berariaz marrazturiko pasarte hori aipu bat izango da. Aipu hori EHSren eredu metodologikoaren arabera sailkatuko da, eta prozesatuko. Noski, "marraztu" diogunean ez da esan nahi jatorrizko testua marraztuko denik: testu hori digitalizatu egingo da eta testu digitalizatua izango da markatzen dena. Handik aterako dira aipuak.

Ez gara hemen langintza konkretu eta delikatu horren xehetasun teknikoak azaltzen hasiko: Nick Gardner-ek horren guztiaren aurkezpen argia egin berria du, Euskaltzaindiaren joan den urriko biltzarrean, gai horren aurkezpenean egindako agerraldian. Irakurleak horren interesa izango balu Euskaltzaindiaren horri buruzko argitalpenean aurkituko du hortaz beharrezko argibidea.

Ikusten denez, bi izango dira Etxeberri egitasmoaren produktu nagusiak. Ikersaioak alde batetik, beren azken emaitzez, eta ikersaio horiek egiteko bilduko den informazio-aipu bilduma zabala bestetik. Aipuak datu-base batean bilduko dira izan ere, eta edonoren eskura jarriko dira interneteko sarean, Euskaltzaindiko web-gunean. Horrela, ikersaioak burutu ahala gero eta aipu-bilduma zabalagoa egongo da sarean. Beste hainbat ikersaio egiteko oso baliagarria izango da bilduma hori. Aipuak datu base batean biltzeak beste doai garrantzitsua ere badu: ikersaioak osatu, biribildu, zehaztu, zuzendu eta eguneratu egin ahal izango dira, informazio edota interpretazio berrien arabera. Iturri berri bat aurkitzen denean informazio hori (horri dagokion dokumentua batetik, eta

hartatik aterako den aipu multzoa bestetik) datu-basean sartuko da. Euskararen dimentsio sozialari buruzko beste ikerketa bat egiterakoan gero eta informazio gehiago izango dugu aldeaz aurretik bildua, prozesatua eta erabiltzeko prestatua. Baita kontrastatua eta sailkatua ere. Ondorioak ateratzeko eta euskaldunon historia ezagutzeko oinarri sendoa eskainiko digute, beraz, jakin-iturri horiek²⁰.

III. EREDU TEORIKO-METODOLOGIKOA

Etxeberri egitasmoaren helburua ez da liburu bilduma bat egitea, baizik eta euskararen historia soziala modu sistematizatuan aztertu eta aurkezte, metodologiako bizkarrezur bateratu batez. Proiektutik gertuena den diziplina soziolinguistika da, eta bertatik hartu ditu M. Zalbidetik bere oinarri teorikoak egitasmoaren eredu teoriko-metodologikoa zehazteko. Soziolinguistikaren aitapontekoa den Fishmanen-gandik jaso dira ekarpen gehienak. Beste autore asko ere oso kontuan izan dira ordea: M. eta U. Weinreich, Ch. A. Ferguson, M. Halliday, E. Haugen, H. Kloss, D. Hymes, J. Rubin, C. Williams, R. L. Cooper, Lambert, L. Milroy, A. Tabouret-Keller, B. Jernudd, R. B. Kaplan eta B. Baldauf, B. Spolsky e.a.

Ikersaioen arteko batasun metodologikoa egiteko eta informazio soziolinguistikoa sailkatzeko eredu bat sortu du M. Zalbidetik. Lau dimentsio eta sei azterbide zituen, hasieran, ereduak. Hogeita lau gelaxka beraz, han-hemengo informazioa lehen pauso batean sailkatzeko (gero, 24 horien barnean azpisailkapen, eta beraz azpi-gelaxka, xeheagoak prestatu daude). Urtebeteko ibilian, eta Lionel Jolyren ekarpenez, 24 gelaxkako eredu hori hogeitaz gero gelaxkatara ekarri da, hasierako sei azterbideetako bat ezabatuz (azterbide horrek jaso beharreko informazioa lehendik lau zutabeetako batean integratuz). Hogeita laukoaren ordez hogeitaz gero gelaxkako konbinazio-taula eratu da honela. Hori da orain aurkeztuko duguna.

Beraz, eta laburbilduz, lan-funtzionamenduari dagokionez honela jardungo da hurrengo urte t'erdian: a) ikerburuak aukeratutako bibliografiatik edo bestelako dokumentaziotik abiatuz, aipu interesgarriak diskriminatuko ditu EHS lan-taldeak; ikersaioaren aipu-bilduma izango da hori; b) aipu horien edukia irizpide jakinen, aurrez definitutako konstruktuen, ildotik sailkatuko da. Ondoren azaltzen den konbinazio-taularen arabera egingo da sailkapen-lan hori. Konbinazio-taularen gelaxka nagusiak baino ez dira aurkeztuko hemen. Berez, ordea, xehekiago sailkatuta egongo da informazioa. Konkretuki, N. Gardner-k sortutako *Thesaurus* historiko soziolinguistikoaren arabera. *Thesaurus*-a sortzeko, berriz, nazioartean indarrean dauden eredu nagusiak hartu dira kontutan. Bertako azpi-atalak zehazteko, berriz, M. Zalbiderekin txosten teoriko-metodologikoa eta bere "EHS aplikazioa praktikoa"²¹ hartu dira kontutan. Hona, besterik gabe, EHSrako berariaz sortu den konbinazio-taula:

*Gogoeta-lan handiena
ikerburuaren esku
gelditzen da beraz,
gisakoa denez. Aldiz
inurri-lan handiena
(liburuak irakurri,
informazioa identifikatu,
diskriminatu, sailkatu eta
prozesatzea) EHS
proiektuaren lan-talde
teknikoak egingo du.*

Dimentsioen eta azterbideen konbinazio-taula

		DIMENTSIOAK			
		A Erabilera	B Hizkuntza- gaitasuna	C Hiztunen hizkeraren ezaugarriak	D Iritziak, jarrerak, jokabideak
AZTERBIDEAK	1 Deskriptiboa eta leku jakineko Aldiune egoera	1A Hizkuntzen erabilera Nork norekin zertaz zer hizkuntza darabilen	1B Hiztunen hizkuntza- gaitasuna , hizkuntza batean eta bestean	1C Hiztunen hizkeraren ezaugarriak , hizkuntzen eta hiztunen gizarte- egoera argitzekoak	1D Han-hemengo hiztunen iritzi- jarrerak , -hizkuntzen izaeraz -hizkuntzen erabileraz -hiztunez
	2 Zinetikoa Egoeraren une eta leku jakineko bilakaera	2A Hizkuntzen erabileraren bilakaera	2B Hiztunen hizkuntza- gaitasunaren bilakaera	2C Hiztunen hizkeraren ezaugarri horietan ageri den bilakaera	2D Hizkuntzei eta hiztunei buruzko iritzi-jarreraren bilakaera
	3 Dinamikoa Bilakaera hori zergatik?	3A Zerk esplika dezake erabileraren bilakaera hori?	3B Zerk esplika dezake hizkuntza- gaitasunaren bilakaera hori ?	3C Zerk esplika dezake hizkuntza- ezaugarrien bilakaera hori?	3D Zerk esplika dezake iritzi- jarreraren bilakaera hori?
	4 Prospektiboa Zer gertatuko da azkenean?	4A Zer gertatuko da erabilerarekin?	4B Zer gertatuko da hizkuntza- gaitasunarekin?	4C Zer gertatuko da hizkuntza- ezaugarriekin?	4D Zer iritzi-jarrera dugu 4A, 4B, 4C eta 4Dren aurrean?
	5 Preskriptiboa Zer egin , helburua lortzeko?	5A Status Planning	5B Acquisition planning	5C Corpus Planning	5D Identity Planning

Taula horretan ikusten denez, EHSrako aukeratu den metodologia-ereduak lau dimentsio ditu eta bost azterbide. Lau dimentsio horiek erabiltzen dira maizenik, hizkuntzaren alde sozialak aztertzeko. Lau dimentsio horietariko bat aztertzen dute, normalean, soziolinguistikazko edo psikolinguistikazko ikerlanek. A, B, C eta D deitu zaie, erraz beharrez, lau dimentsioei.

Lehenengo dimentsioak (A dimentsioak) hizkuntzaren erabilera du aztergai; hots, leku eta une jakin batean hiztunen jarduna deskribatzen du. Zutabe horretan (zutabe horretako bost gelaxka horietariko batean) sailkatzen dira, hortaz, erabilerari buruzko informazioa dakarten aipuak. Dimentsio hori izaten da sarri (ez, ordea, beti), EHSrako garrantzitsuena eta interesgarriena. *Thesaurusean* ere bera dugu, oraingoz, gehien landua eta zehazkien garatua.

Bigarren dimentsioak (B dimentsioak) hiztunen hizkuntza-gaitasuna aztertzen du. Hiztunek hizkuntza batean edo bestean, hitzez edo idatziz, era aktibo-produktiboan edo jasotzaile gisa duten gaitasunari buruzko aipuak sailkatzen dira zutabe horretan, bertako bost gelaxketako batean. *Thesaurusean* hainbat azpiatal zehaztu dira, esan bezala: leku eta aldi jaki-

neko hiztunek ageri dituzten gaitasun aktiboak (mintzatzeko edo irakurtzeko gaitasuna) eta pasiboak (ulermena, irakurmena) berariaz zehaztuko dira.

Hirugarren dimentsioa (C dimentsioa) hizkuntzalaritzarekin lotuena da. Hiztunen (une eta aldi jakineko hiztunen edota, toponimian adibidez, haien aurretikoan) hizkeraren ezaugarriak jasotzen dira hor, beti ere mintzajardunaren gizarte-perspektiba osatzeko eta zehazteko lagungarri sendo diren neurrian. Dialektologiaren, onomastikaren, bai eta interferentzia- zein kode-nahaste fenomenoen berri ematen duten aipuak berariaz jasoko dira zutabe horretan. EHS ez da hizkuntzalaritzan sartuko. Hizkuntzalarien azterketa-emaitzak jaso eta, EHSrako argi-iturri diren neurrian, kontuan hartzea izango da lan-atal horren egitekoa. Hots, hizkuntzalariek (eta, oro har, goiko aztergai horietako espezialistek) ematen diguten informazioa bildu eta sailkatu egingo du EHSk. *Corpusa* bera ez da, hortaz, berariaz aztertuko.

Laugarren dimentsioan (D dimentsioan) hizkuntzei eta hiztunei buruzko iritziak, jarrerak eta jokabideak izango dira aztergai nagusi. Bertan sartzen dira, beraz, esparruok: hizkuntzen berezko edo, maizenik, ustezko tasunei buruz, hizkuntzen erabilerari buruz eta, azkenik, norbere taldeko edo beste hizkuntzako hiztunei buruzko iritzi-jarrerak, bai eta jokabideak. Erabilera moduak ulertzeko eta erabileren zergatiak ezagutzeko funtsezkoa da, jakina, laugarren dimentsio hori.

Dimentsio bakoitzean, dagoeneko esan denez, gelaxka asko dira. Bosna gelaxka ditu dimentsio bakoitzak. Aipuak sailkatzeko edo, hobeto esanik, lau dimentsio horiek aztertzeke bost enfoke, bost azterbide edo ikuspuntu erabiliko dira. Hona, labur bilduz, bost azterbideak: deskriptiboa, zinetikoa, dinamikoa, prospektiboa eta preskriptiboa. Lehenengo azterbidea (1) deskriptiboa da. Une eta leku jakin batean gauzak nola dauden azaltzen duen informazioa jasotzen du azterbide honek, bere lau gelaxkatan (1A, 1B, 1C eta 1D): 1A gelaxkak leku eta une jakin bateko erabilera kontuak bilduko ditu, 1B gelaxkak une eta leku jakin bateko hiztunen gaitasun kontuak, 1C gelaxkak hiztun horien hizkeraren ezaugarriak (konkretuago, hortik eratoritzen diren ondorio soziohistorikoak) eta 1D gelaxkak une eta leku horretan indarrean dauden hizkuntzei eta hiztunei buruzko iritziak, jarrerak eta jokabideak. Horrela, adibidez, 1A eta batez ere 1D gelaxketan sailkatuko genuke Doctor Camino-ren aipu hau: “El idioma vulgar en San Sebastián es el vascuence, el cual se habla con tanta facilidad y gallardía, que hasta el mismo Larramendi, voto superior en este asunto, llegó a confesar no se podía negar a sus naturales los primores de la elocuencia vascongada (...) se habla en aquella ciudad con grandísimo aire y distinción y una expresiva que les es particular”.

Bigarren azterbidea (2) zinetikoa da. Dimentsio bati buruzko bilakera ematen badigu informazioa aipu batek bertan kokatuko dugu. Bi motatakoak izango dira nagusiki azterbide honetan sartuko diren

Ikusten denez, bi izango dira Etxeberri egitasmoaren produktu nagusiak. Ikersaioak alde batetik, beren azken emaitzez, eta ikersaio horiek egiteko bilduko den informazio-aipu bilduma zabala bestetik. Aipuak datu-base batean bilduko dira izan ere, eta edonoren eskura jarriko dira interneteko sarean, Euskaltzaindiko web-gunean. Horrela, ikersaioak burutu ahala gero eta aipu-bilduma zabalagoa egongo da sarean.

Ikersaioen arteko batasun metodologikoa egiteko eta informazio soziolinguistikoa sailkatzeko eredu bat sortu du M. Zalbidek.

Lehenengo dimentsioak (A dimentsioak) hizkuntzaren erabilera du aztergai.

Bigarren dimentsioak (B dimentsioak) hiztunen hizkuntza-gaitasuna aztertzen du.

Hirugarren dimentsioa (C dimentsioa) hizkuntzalaritzarekin lotuena da.

Laugarren dimentsioan (D dimentsioan) hizkuntzei eta hitzunei buruzko iritziak, jarrerak eta jokabideak izango dira aztergai nagusi

aipuak. Alde batetik historiako bi une konparatzen dituzten aipua: adibidez Iztuetaren *Gipuzkoako Dantza Gogoangarriak*²² liburuan, agertzen den pasarte hau: “Gure seme campoetan guenduen a bertorri zaicu echera, chit galanturik, osasunarekin, eta guztiz jakinduria aundicoa. Aztu zaio euskera guzi-guzia”. Hemen pertsona baten (funtsean, pertsona multzo aski zabalen: goi-ikasketak kanpoan egindako gazte-helduen) hizkuntza-gaitasunaren bilakaera adierazten da, baina informazioa leku oso batekoa ere izan liteke: bi data hartuta, leku horretako hizkuntza portaerak konparatuz *language shift* edo *language maintenance* egoeran gauden azter liteke 2A gelaxkan, hiztunen hizkuntza-gaitasunean (ahoz edo idatziz, beren mintzo-sorta osatzen duten hizkuntza zein aldaeretan) aldaketa edo jarraipena den nagusi azter liteke 2B gelaxkan, eta abar.

Azterbide zinetikoari buruz informazioa lortzeko dagoen bigarren modua, esan bezala, belaualdien arteko hizkuntza-portaera, gaitasuna, iritzi-jarrera bilduma eta hizkuntzaren beraren osaera konparatzea izan ohi da. Gazteek adinekoek baino euskara gutxiago erabiltzen dutela ageri baldin bada testuren batean, horrela, 2. azterbide honetan gaude: konkretuki, 2An.

Hurrengo azterbidea (3) azterbide dinamikoa da. Aldaketak (erabilean, hizkuntza-gaitasunean, hizkuntzaren osaeran eta iritzi-jarreretan) zergatik gertatzen diren aipatzen duten aipua biltzen ditu azterbide honek. Seguruenik, hori da hizkuntzen plangintzarekin batera, gehien landu den arloa soziolinguistikian. Izan ere, gertaera soziolinguistikoak eta aldaketa soziolinguistikoak zergatik gertatzen diren da zientzia arlo honen interes nagusietariko bat. Zergatiak ezagutzuz, errealitatea nondik datorren ulertu daiteke eta neurri batean etorkizuna aurreikusi, bai eta plangintzaren bitartez aldatzen saiatu ere. M. Zalbide argi azaldu duenez bere txosten metodologikoan²³: “Hizkuntza baten erabilera ez da kasualitatez indartzen, ez eta ahultzen. Zerbaitegatik gertatzen da hori. Beste horrenbeste gertatzen zaio norbanakoari: zerbaitegatik galtzen du hiztun batek bere ama-hizkuntza, eta beste bat ikasten; zerbaitegatik bihurtzen dira elebakar batzuk elebidun, eta elebidun batzuk elebakar. Hizkuntzaren beraren planora ere eraman liteke perspektiba dinamikoa. Hizkuntza batzuetan txikia da, oso, interferentzia eta konmutazioa. Beste batzuetan, aldiz, handia. Hori ere ez da zorizko gertaera. Zergatik indartzen edo ahultzen da hizkuntza baten erabilera? Zergatik ahazten edo atzentzen zaio zenbait hiztuni bere hasierako (edo geroagoko) hizkuntza, eta beste bat nagusitzen bere hitz-etorrian, erraztasunean eta funtzionaltasunean? Zein prozesu psikologiko, sozial eta kultural daude, zenbait hizkuntzatan hain begien bistakoa den interferentziaren eta konmutazioaren atzean? Zergatik ari da halakoetan interferentzia eta konmutazioa ugaritzen edo ahultzen, eta zein alorretan (fonetikan, lexikoan, morfosintaxian, semantikan)? Zergatiko horien galdezka jarduna da gizona, hemen eta mundu zabalean, aspaldiko mendeetan”.

Hirugarren azterbidean beraz zergatietaz informazioa ematen dituzten aipua sailkatuko dira, eta hori ez da zergatiak aztertzearekin eta zehaztearekin nahastu behar. Proiektuaren lankideek euskararen historian zehar idazleek eta ikerlariak maneiatu dituzten hipotesiak sailkatuko dituzte, ondorioak ateratzeko baina lan ezberdina da. Ondorioak ateratzea eta benetan zergatiak zeintzuk diren zehazten saiatzea ikerburuei dagokie ikersaioak eginez.

Laugarren azterbidea (4) prospektiboa da. Egungo (edo behinolako) egoera soziolinguistikoaren etorkizuna edo hizkuntzaren etorkizuna nolakoa izango den aurreikusten dutenean autoreek, prospekzio-lanean sartzen dira ezinbestean. Hortik eratoritzen den informazioa laugarren azterbide honetan kokatzen da. Ezagunak dira adibidez W. V. Humboldt-ek edo E. Reclus-ek egindako aurreikuspenak, euskararen etorkizunaz. Prospekzio-saio horien kontua lehendik dator ordea. Adibidez, 1662an, Fermin de Ulzurrun nafarrak Martin de Agoiz diputatuari bidalitako gutun batean zera adierazten da espreski: euskara galtzen ari zela eta galdu egingo zela are gehiago, gizarte-urek bere bidetik (hots, indarrean zeuden gizarte-antolamenduzko arauak bere horretan) jarraituz gero²⁴. Horrelako informazio baliosa laugarren azterbide honetan kokatuko da. Ikerburu batek euskararen etorkizunari buruzko diskurtsoa zein izan den aztertzeke interesa izango balu, atal honetan aurkituko luke behar duen informazioa.

Azken azterbidea (5) preskriptiboa da. Etorkizuna moldatzeko (autoreak helburu gisa hobesten duen etorkizunera hurbiltzeko) zer neurri hartzen (edo hartzea proposatzen) diren jasotzen dituzten aipua kokatzen dira azterbide honetan. Atal hau oso lotuta dago beraz plangintzarekin, eta jakina denez, hizkuntza-plangintzaren arloa da soziolinguistikaren atal nagusienetariko bat. Plangintzarekin zer ikusirik izango duten aipua hemen kokatuko dira beraz.

Azterbide preskriptiboa erabilerarekin lotzen denean (5A gelaxkan sartzen den informazioa beraz) status-plangintzarekin lotuta izango da. Ingeleseko *acquisition planning* (ezkuratzearen plangintza) da aldiz, labur bilduz, 5B gelaxkan kokatuko den informazioa. Azterbide preskriptiboa hizkuntza-gaitasunarekin lotuta dagoenean beraz, gelaxka honetan sartuko da jasotako informazioa. Hizkeraren ezaugarriak eta maila preskriptiboa lotzen direnean corpus-plangintza deitu ohi da; bukatzeko, iritziak eta jarrerak maila preskriptiboarekin lotzen direnean identitatearen plangintzaz jardun ohi da.

Kontuan hartu behar dugu, plangintza horien guztien kasuan maila soziolinguistikoa funtsezkoa izango dela. Adibidez 5D gelaxkan, identitatearen plangintzarekin lotuta dagoen plangintzan, bakarrik hizkuntzarekin lotura badu sartuko da informazioa. Alegia euskaldunek kristau zintzo izan behar dutela esaten badu autore batek, identitatearen plan-

Hurrengo azterbidea (3) azterbide dinamikoa da. Aldaketak (erabileran, hizkuntza-gaitasunean, hizkuntzaren osaeran eta iritzi-jarreretan) zergatik gertatzen diren aipatzen duten aipua biltzen ditu azterbide honek.

**Laugarren azterbidea (4)
prospektiboa da. Egungo
(edo behinolako) egoera
soziolinguistikoaren
etorkizuna edo
hizkuntzaren etorkizuna
nolakoa izango den
aurreikusten dutenean
autoreek, prospekzio-
lanean sartzen dira
ezinbestean.**

gintzan sartzen da hori, bete-betean. Baina informazio hori ez dugu berariaz jasoko, baldin eta ez badu lotura zuzena ageri hizkuntza kontuekin. Aldiz, testuak berariaz aipatzen badu kristau ona izateko euskaraz (edo erdaraz: habla cristiano!) egin behar dela, euskarari (oro har, hizkuntzei) buruzko informazio baliosa ematen zaigu bertan eta hizkuntza bidezko identitate kontuetan badu tokirik mota honetako aipuak. Hori da 5D gelaxkako altxor-biltzearen esparrua.

Azterbide preskriptiboarekin eta plangintzaren atalarekin lotuta komeni da beste ohar bat egitea: plangintza aipatzen dituzten aipu guztiak sartuko dira atal honetan. Alegia ez bakarrik etorkizunari buruzkoak (etorkizuna autoreak nahi duen bezala izateko zer egin behar den azaltzea) baizik eta iraganeko plangintzei buruzko informazioa ere atal honetan kokatuko da. Iraganean egindako plangintza bat aipatzen denean, beraz, bertan kokatuko da. Adibidez, Justo Barbagero abadeak erregeek iraganean bultzatutako hizkuntza-plangintza aipatzen duenean, azterbide preskriptiboaren atalean kokatzen da informazio hori: "...nuestros Reyes, han procurado limitar el uso de la lengua vascongada, mandando que en todas las escuelas se enseñe por libros castellanos y empleando otros medios para generalizar el uso de este idioma...".

IV. AURRERA BEGIRA

Artikulu honetan, Etxeberri egitasmoa, hizkuntzen historia soziala aztertzeko Euskaltzaindiaren barruan sortu den eredia aurkezten saiatu gara. Proiektuaren problematika orokortasun maila batean saiatu gara kokatzen artikulua hasieran, nazioarteko egoera aipatuz eta gero proiektua bera aurkeztu dugu, bere eredu teoriko-metodologikoaz. Azken zati honetan, informazioa sailkatzeko erabiliko dugun dimentsio eta azterbide nagusiak aurkeztu dira, baina lehenago aipatu dugunez, informazioaren sailkapena ez da dimentsioetara eta azterbideetara mugatuko, askoz xeheago sailkatuta egongo da hori *thesaurus* historiko soziolinguistikoaren arabera.

Artikuluaren hasieran aipatu dugunez, proiektu hau ezinbestekoa da euskararen historia soziala nolakoa izan den behar bezala argitzeko. Horrek ez du balio, bakarrik, iragana egiazko datuetatik hurbilago eza-gutzeko. Horrezaz gainera funtsezkoa izan liteke, gauzak ondo egiten badira, etorkizuna ondo moldatzen saiatzeko ere.

Mota honetako proiektu bat ez da osatzen eta amaitzen egun batetik bestera. Urteak behar dira euskararen historia soziala ahalik eta xehe-tasun gehienarekin ezagut dezagun. Modu berean, urteak behar izan dira hizkuntzaren maila soziolinguistikoari dagokion lekua aitor diezaigun. Orain proiektua abian jarri da eta, espero denez, laster ikusi ahal izango dira bere lehenengo emaitzak. Ikerburu batzuk beren ikersaioak prestatzen ari dira eta. Gauzak bidean okertzen ez badira, euskararen historia

sozialaren zatitxo bati buruzko argitasuna emango digute berandu baino lehen. Euskararen historia sozial orokorrari buruzko ikuspegi zabala izateko gehiago itxaron beharko dugu, baina denon ahaleginaren esker bidea hasi gara egiten.■

OHARRAK

1. Artikulua osatzeko Mikel Zalbidek egin dituen ekarpenak eta zuzenketak bereziki eskertu nahi ditut lerro horien bitartez.
2. Michelena, L. (1964): *Sobre el pasado de la lengua vasca*, Donostia: Auñamendi.
3. Ibidem, 71. or. Hizkuntzaren historia sozialari erreferentzia egiten diolarik zera aipatzen du Mitxelena: "La distinción tiene buenos fundamentos no sólo en el orden del conocimiento, sino también en el orden de la realidad. Por una parte, es posible construir la historia de una lengua sin conceder más que una atención marginal a los acontecimientos históricos externos, como también puede suceder que conozcamos bastante bien la historia de un país en un período determinado sin que por ello poseamos sino una información fragmentaria sobre su situación lingüística".
4. Brunot, F.; Bruneau, C. (1969): *Précis de grammaire Historique de la Langue Française*, Paris: Masson et Cie.
5. Cohen, M. (1967, 1987): *Histoire d'une langue. Le Français*. Paris: Messidor/Éditions Sociales.
6. Lapesa, R. (1986): *Historia de la lengua española*. Madrid: Gredos.
7. Michelena, L. (1985): *Lengua e historia*. Madrid: Paraninfo.
8. Jenkins, G. H. (ed.) (1998) /Language and Community in the Nineteenth Century/. Cardiff/Caerdydd: University of Wales Press/Gwasg Prifysgol Cymru. (2000) /The Welsh Language and its Social Domains, 1801-1911. /Cardiff/Caerdydd: University of Wales Press/Gwasg Prifysgol Cymru. (2001) /The Welsh Language before the Industrial Revolution/. Cardiff/Caerdydd: University of Wales Press/Gwasg Prifysgol Cymru.
- Jenkins, G. H. eta Williams, M. A. (ed.) (2000) /'Let's do our best for the ancient tongue': The Welsh Language in the Twentieth Century/. Cardiff/Caerdydd: University of Wales Press/Gwasg Prifysgol Cymru.
- Jones, D. (1998) /Statistical Evidence Relating to the Welsh Language/. Cardiff/Caerdydd: University of Wales Press/Gwasg Prifysgol Cymru.
- Williams, M.A. eta Parry, G. (ed.) (1999) /The Welsh Language and the 1891 Census/. Cardiff/Caerdydd: University of Wales Press/Gwasg Prifysgol Cymru.
9. Kirsch, F. P.; Kremnitz, G.; Schlieben-Lange B. (2002): *Petite histoire sociale de la langue occitane*. Canet: éditions Trabucaire.
10. Broudic, F. (1995): *La pratique du breton de l'ancien régime à nos jours*. Rennes: PUR.
11. Euskaltzaindia (1978): *Euskararen liburu zuria*. Bilbo: Euskaltzaindia.
12. Erize Etxegarai, X. (1997): *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa 1863-1936*. Iruña: Nafarroako Gobernuako Argitalpen Fonda.
13. Intxausti, J. (2007): "Joanes Etxeberri Egitasmoa. Euskararen Historia Sozialerako Proiektua", in *Euskera* 52, 2007-1 Bilbo: Euskaltzaindia.
14. Zalbide, M. (2007): "Euskararen Historia Sozialerako lan-markoa. Datuak biltzeko eta lantzeko proposamen metodologikoa". Argitaratu gabeko (laster kaleratzeko) txostena, 6.or.
15. Ibidem, 7.or.
16. Intxausti, J. (2007)
17. Ikus adibidez *Euskararen liburu zurian* egin zuen ekarpena edota:
Intxausti, J. (1992): *Euskara euskaldunon hizkuntza*. Donostia: Elkar.
Intxausti, J. (1998): *Euskararen aldeko motibazioak*. Leioa: UPV. (Argitalpenaren zuzendaria)
Intxausti, J. (1998): *Euskararen aldeko mugimendu sozialak*. Leioa: UPV. (Argitalpenaren zuzendaria)
18. Zalbide, Mikel (1988): "Mende-hasierako euskalgintza: urratsak eta hutsuneak", in *II. Euskal Mun-*

**Azken azterbidea (5)
preskriptiboa da.
Etorkizuna moldatzeko
(autoreak helburu gisa
hobesten duen
etorkizunera hurbiltzeko)
zer neurri hartzen (edo
hartzea proposatzen)
diren jasotzen dituzten
aipuak kokatzen dira
azterbide honetan.**

Proiektu hau ezinbestekoa da euskararen historia soziala nolakoa izan den behar bezala argitzeko. Horrek ez du balio, bakarrik, iragana egiazko datuetatik hurbilago ezagutzeko. Horrezaz gainera funtsezkoa izan liteke, gauzak ondo egiten badira, etorkizuna ondo moldatzen saiatzeko ere.

du Biltzarreko Euskara Biltzarra. *Hizkuntza eta Gizartea*, 389-412. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

(1990): "Euskal Eskola, Asmo Zahar Bide Berri", in *Euskal Eskola Publikoaren Lehen Kongresua* (1. lib., 211-271). Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

(2003): *Ahuldutako hizkuntzak indarberritzea: teoriak zer dio?* www.erabili.com

(2003): "Hendai-Hondarrietako biltzarrak: XX. mendeko hizkuntz plangintzaren iturburu", in *Euskaltzaleen Biltzarren Mendeurrena, 1-134*. Bilbo: Sabino Arana kultur elkargoa.

(2004): *Joshua A: Fishman-en RLS edo HINBE*. www.erabili.com

(2007): "Pedagogoa Batzar Nagusietan. Hizkuntzen azterbideak, Iturriagaren argitan", in *Euskera* 2007, 1, 61-157.

(2007) "Iparraldeko euskalgintza, XIX. mendearen bigarren erdian: Zaldubi eta bere garaia", in *Euskera* 2007, 3, 52. liburukia, 877-1008.

Zalbide, Mikel eta Arantzazu Muñoa, 2006: "Lardizabal eta bere gramatika, perspektiba sozio-linguistikoa", in Lardizabal, *Gramática Vascongada*, 2006ko berrargitalpena. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.

19. Madariaga Orbea, J. (2006): *Antology of Apologists and Detractors of the Basque Language*. Reno: University of Reno (Center for Basque Studies).

20. Joly, L. (2008): "Egunen gurpilean" in *Jakin*. Argitaratzeaz.

21. Zalbide, M. (2007): "Euskararen Historia Soziala. Aplikazio praktikoa. Donostia 1761: hizkuntzak eta hiztunak". Argitaratu gabeko dokumentua.

22. Iztueta, Juan Ignacio (1824). *Gipuzkoako Dantza Gogoangarriak*. Erabilitako iturria 1968 Bilbo, La Gran Enciclopedia Vasca.

23. Zalbide, M. (2007): "Euskararen Historia Sozialerako lan-markoa. Datuak biltzeko eta lantzeko proposamen metodologikoa". Argitaratu gabeko txostena.17. or.

24. "Carta del Doctor D. Fermin de Ulzurrun al diputado del reino Don Martin de Agoiz. 1662" Zalbide, M. (2007) argitaratu gabe.